

deba

berri

Debako udal aldizkaria - Revista municipal de Deba

Kiroldegia eraberritzeko lanak

Reforma del polideportivo

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala

Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.

Ale kopurua/Ejemplares: 2000

L.G./D.L.: SS-918-2012

Negu gogorraren ondoren iritsi da uda garaia. Etxean dugun itsaso ederrak bere aurpegi gogorrena erakutsi digu pasa diren hilabeteetan. Poliki-poliki lasaitu eta olatuek egindako zauri gehienak konpontzea lortu dugu eguzkia iritsi denerako.

Gure herriko kaleak jende berriz beteak dira: motxila eta bastoiak, furgonetak, karabanak, tabernetako terraza beteak, plana eskuan galdezka ditugun atzerritarak... Urrutikoak, eskualdeko edo betiko udarako bisitariak aurkitzeko garaian gaude. Gurea, gustuko herria izan da beti bisitariarentzat. Bisitan etortzeko modua, eta haiei Debak egindako eskaintza aldatzen joan badira ere azken garaiotan.

Azken hamarkadan, herritar desberdinen lanari esker, Santiagora kostaldetik iristeko bidean geraleku dugu Deba. Uda hastearekin batera, oinezko bisitari horiek, atsedentleku berria aurkitu dute tren geltokian erabilerarik gabe zeuden etxebizitzak berrituz. Euskal Kostaldeko Geoparkearen izendapenak ere, indarra eman dio lehendik ere ikusgarriak ziren Flyscha eta Karsta bezalako natur inguruneeri.

Bisitan datozeni eskainitakoaz gain, udako kultur agendak, musika hamabostaldiak, herriko taldeen emanaldiek, gazteek antolaturiko ekimenek, uda garaiko festa desberdinek, aisialdi edo kirol elkarteen eskaintzak, klaustroko erakusketa edo bisita gidatuek,...uda pasatzeko dugun lekurik hoberenaren, Debaren, eskaintza paregabea osatzen dute.

Herritar askoren inplikazioari esker, herri bizia da gurea. Kultura, ingurunea, gure ondarea eta nortasuna ditugu bizitasun horren oinarri, eta urtez-urte biziago gaudela nabari daiteke. Bakoitzak berean lan eginez, urtero lore politagoak loratzea lortzen ari gara.

Jarrai dezagun bidea eginez.



Durante los pasados meses de invierno, el mar ha azotado fuertemente nuestra playa y alrededores causando desperfectos importantes pero que, afortunadamente, hemos podido ir solventando en su gran mayoría previo al inicio del periodo veraniego.

Las calles de nuestro pueblo se encuentran llenas de nuevas gentes: mochilas y bastones, furgonetas, terrazas llenas, extranjeros que con un plano en las manos hacen preguntas...

Es tiempo de encontrarnos con personas que vienen de fuera, de los alrededores y con los visitantes veraniegos habituales... Deba ha sido siempre de su gusto y la oferta que nuestro pueblo les hace llegar hoy en día, es cada vez más rica, variada y atractiva.

Gracias a la implicación de diferentes personas y entidades, Deba se ha convertido últimamente en parada obligada para aquel o aquella que está haciendo el Camino de Santiago de la costa. Estos/as viajeros/as se encuentran en Deba con un albergue recién construido y habilitado en las antiguas viviendas del edificio de Euskotren.

La declaración de Geoparque ha incrementado la fuerza que ya de por sí tenían los entornos naturales del flysh y la zona kárstica.

Añadido a la oferta para los visitantes, la agenda cultural para el periodo estival ofrece un sinfín de actividades para todos y todas, tales como la quincena musical, actuaciones de los grupos musicales locales, actividades organizadas por los/as jóvenes, diferentes fiestas veraniegas, ofertas de las entidades deportivas y de entretenimiento, visitas guiadas, visitas al claustro,... haciendo de Deba un lugar entrañable e inmejorable para disfrutar del verano.

Gracias al trabajo e implicación de los vecinos/as, estamos construyendo un pueblo vivo y dinámico. Nuestra cultura, el entorno natural, nuestra historia, nuestro modo de ser, son los rasgos que definen y muestran esa realidad.

Seguiremos haciendo camino en esa línea.

Udal barruko erabilera plana

IV. Plangintzaldia amaituta, Udalak euskararen erabilera plana berritzeari ekin dio eta, beraz, 2017.era arte iraungo duen V. Plan honetan, batetik, gaur egun Debako Udalean euskara zer, noiz eta nola erabiltzen den jakiteko egin den diagnostikoa jasotzen da; eta bestetik, UEMAK bere baitan dauden udaletarako onartuta dituen hizkuntza irizpideak kontuan harturik, plangintzaldi honen amaierarako lortu beharreko helburu orokorrak zehazten dira.

Euskara planaren **helburu nagusia** da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Udala UEMAKo kideenez, Udalaren hizkuntza egoera UEMAKo Zuzendaritza batzordeak onartutako hizkuntza irizpideekin alderatu da. Alderatze horretatik ateratako emaitzarekin Udala lau multzoetatik batean sailkatu da. Multzoak, egoera kaskarrenetik hoberenera, hauek dira: abian, magalean, gora bidean eta tontorrean.

Sailkapen horren arabera, Debako udala **MAGALEAN** aurkitzen da (nagusiki elebrietan modu orekatuan jokatu arren, tartean gaztelania hutsean ere funtzionatzen du). Udalaren egoera horretatik abiatuta, beraz, plangintzaldi amaierarako lortu nahi diren helburu estrategikoak zehaztu dira, gero, urtez urte, helburuak mailakatuz.

Jarraipen batzordeak egingo du erabilera planaren ekintzen jarraipena sei hilean behin elkartzuz. Bertan parte hartuko dute UEMA eta Udaleko euskara zinegotzi eta teknikariek gain, udal zerbitzuetako buru guztiek. Haien ardura izango da helburuak zenbateraino bete diren baloratzea eta, beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak proposatu eta abian jartzea.

Udal barruko erabilera plana Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin uztartu nahi izan da bestalde. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Sailordetzaren aginduz, Euskararen Plan Estrategikoa ere aurten onartu behar da beraz eta, hark bezala, 2017ra arteko iraupena izango du. Plan Estrategikoa hori lantzen ari gara momentu honetan Udalean eta, urte amaiera baino lehen, Euskara Batzordeko kideekin eta interesa eduki lezakeen edozeinekin konpartitu nahiko genuke, ekarpenak jaso eta plana aberasteko asmoz.



ARTELEKU



Berri ona da guztiontzat: Debako Arte eskolak Artelekuko arte grafikoko tailerrak hartuko ditu. Donostian kokatuta dagoen erakundeak, arte garaikidearen identitate zeinu denak, egoitza aldatuko du eta, hemendik aurrera, Deban eskainiko du arlo grafikoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du Artelekuko tailerrak Arte Eskolara pasatzea, kontuan izan dituelako, alde batetik, prestigioa eta, bestetik, eskolak eskaintzen dituen aukerak.

Grabatua lantzeko eskoletatik gurea Euskal Herriko osatuenetako bat izateak lagundu du, nagusiki, erabaki hau hartzen; gainera Debako Udalarena da. Horregatik, bada, Gipuzkoako Aldundiko kultura saileko ordezkariak tailerrak eta makinaria ematea eta Debako arte eskola egokitzea erabaki dute. Gaur egun eskolak Latsurregiko igueran dituen lokaletan kokatuko dira tailerrak, aurretik, beharrezko egokitze lanak eginda.

Arte eskolak, beraz, honako tailerrak eskainiko ditu arlo grafikoa: grabatu kalkografikoa, xilografia, serigrafia eta litografia. Aukera zabal, gainerako espezialitateak aberastera datorrena, jakin badakigunez, zur eta harri langintza, brontzearen fundizio artistikoa eta zeramika ere eskaintzen direlako diseinua, marrazketa, pintura eta artearen historiarekin batera. Eskaintza zabal eta askotarikoa, eskualdeko hezkuntza sistema aberastuko duena.

Arteleku Imanol Muruaren babespean jaio zen 80ko hamarkadan eta urte hauetan guztietan, kudeaketan, proiektzioan eta arte sorkuntzan eredu izan da. Loiolako auzoan zeuden lokaletatik kultura eta pentsamenduaren eragile aktiborik nabarmenenak igaro dira, prestigio handia emanez horrela; kopianeko eredu ere izan da beste komunitateetako arte garaikideko kultur ordezkarietzat, arrakasta desberdinak izan dituzten arren. Bere filosofia (artistei eta, oro har, herritarrei zabalik dauden sormen-tailer eta laborategiak) eta garai aldakorrekiko malgutasun eta egokitze-gaitasunak, Arteleku erreferentziatzkoa izatea ekarri dute, bai penintsulan, bai nazioartean ere. Horren froga da bertako parte hartzaileen jatorria, gertuenekoetatik hasita, Estatu edota Europakoak ere hartu baititu.

Arte eskolarentzat eta Debarentzat, oro har, aukera paregabea da, beraz, espezialitate hau hartzea eta zentroaren eskaintza pedagogikoan barneratzea. Eskaintza hori, gainera, debar guztientzat zabalik egongo da, horretarako egokituko diren tailerretan parte hartu ahal izateko formulak bilatuko dira eta.

Berri ona, datozen egunetan zehazten joango dena. Xehetasun guztiekin helaraziko dizuegu.

La Diputación de Gipuzkoa ha aprobado que los talleres de litografía y serigrafía de Arteleku pasen a la Escuela de Arte de Deba. Para ello, han tenido en cuenta tanto el prestigio como las posibilidades que nuestra escuela ofrece.

Con estos talleres la Escuela de Arte contará, en su área de gráfica, con los talleres de grabado calcográfico, xilografía, serigrafía y litografía. Una amplia gama a la que se suma el resto de las especialidades, como son: talla de madera y piedra, fundición artística de bronce, cerámica y la complementaria de diseño, dibujo, pintura e historia del arte. Una amplia y variada oferta que enriquece el sistema educativo de la comarca.

Es por ello una excelente oportunidad para la Escuela de Arte, y para Deba en general, acoger esta especialidad e integrarla en la oferta pedagógica del Centro. Oferta que estará abierta a todo el pueblo y en la que se buscarán fórmulas que posibiliten que todos/as los/as debarras puedan acceder a los talleres que se van a habilitar a tal efecto.

Una buena noticia que se irá perfilando en próximas fechas y de la que daremos cuenta detalladamente.

Bideen inbentarioaren bigarren fasea

Orain dela gutxi, Debako Bide Publikoen Inbentarioaren lehenengo fasea amaitu da. Bide pabimentatuen inbentarioa hain zuzen ere.

Hala ere, hasierako lan honetan garbi ikusi da, lanarekin segi, eta bigarren fase bati ekin behar zaiola, beraz, bigarren faseari ekingo diogu, Debako bigarren mailako bideetatik, pabimentatu gabekoetatik (gurdibideak, mendi bideak, ...), ondare publikokoak zeintzuk diren zehazteko.

Herri honek eta landa auzoek historian zehar izan duten bide sarea berreskuratzea da helburua. Gaur egun ezagutzen eta hainbat erabilera duen herriko bide sareak, aisialdirako nahiz elkar komunikatzeko erabiliak, mendeetan zehar eratu duen ondare kulturala berreskuratzea alegia.

Bideen behin-betiko izaera finkatzeaz gain, bakoitzari dagokion estatus legala ezarriko zaio. Hori dela eta garapen urbanistikoko egitasmo berriek, azpiegitura berriek, errepide berriek, eta aisialdiko forma berriek sortzen dituzten liskarrei irtenbidea emango die lortuko den dokumentuak.

Lan hau, SENDO S.L. ingenieritza enpresak burutuko du, ikerketan metodo historiko-geografikoa erabiliz eta herri edo bizilagunen ezinbesteko partaidetzarekin.

Udalak, uztailaren 21ean Deban eta uztailaren 23an Itziarren, lanari hasiera emateko herri aurkezpenak egin zituen, lanaren zergatia, metodologia eta emango diren pausuak aipatuz. Bertan baserritarrak, bideen erabiltzaile taldeak eta hainbat herritar bildu ziren, lanaren inguruko kezak aurkeztuz eta ekarpenak eginez.

Uztailan izandako aurkezpen bileren ostean, hauek dira emango diren hurrengo urratsak:

- **Ikerketa lana eta dokumentazioa biltzea:** antzinako kartografia eta katastroa (50. urteko aire-argazkiak eta planoak), antzinako idazlanak, bildutako testigantzak eta herri erabilera frogatua hizpide edukita.

- **Lehenengo zirriborroa eratzea**
- **1go zirriborroaren aurkezpena**
- **Lehenengo onarpena**
- **Boletinean argitaratu. Jendaurreko informazio-aldia. Alegazioak**
- **Alegazioen erantzuna**
- **Behin-betiko onarpena**



INVENTARIO DE LOS CAMINOS RURALES

Recientemente se ha finalizado la primera fase correspondiente a los caminos pavimentados. En la segunda fase se acometerá el trabajo para completar el inventario con los caminos carretiles y de monte y poner al día el patrimonio de caminos públicos del municipio de Deba.

Se definirán las características de uso histórico y a cada camino se le concederá el estatus legal y documentación que le corresponda, con el fin de posibles actuaciones urbanísticas futuras.

Los días 21 y 23 de julio, en Deba e Itziar respectivamente, se procedió a la presentación de los trabajos a realizar por la empresa de ingeniería SENDO,S.L.

Una vez finalizado, el trabajo se expondrá al público, abierto a las posibles alegaciones que se puedan producir.

Lokalen erabilpenerako ordenantza



eraikuntzen barruan lekua hartzen duten lokalei, hain zuzen ere.

Mekanismo horrek, neurri batean, udalerrian etxebizitza-eskaintzarik eza arintzen lagundu dezake, baina udalak batez ere zainduko du egiten diren etxebizitzek etxebizitza-erabilera izateko gaur egun eskatzen diren baldintza guztiak (higiene-arlokoak, bizigarritasun-baldintzak, erabilera-bateragarritasuna eta abar) betetzen dituztela. Horregatik, erabilera aldatzeko baimen-eskaerak kasuz kasu aztertu beharko dira, teknikariek aztertuko dituzte eta baimena emango zaie edo ez, proposatu-tako erabilera izateko gaitasuna baduten edo ez arrazoituta.

Ordenantzatan, erabilera gauzatzeko bete beharreko arauetz gain, erabilera zein lokaletan gauzatu ahal daitekeen banan banan identifikatzen duten planoak aurkitzen dira.

Ordenantza 2014ko ekainaren 25ean argitaratu da Gipuzkoako Boletinean eta argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 30 lan egun egongo dira alegazioak egiteko. Espedientea Debako udaletxeko idazkaritzan egongo da, 8:00-14:00, astelehenetik ostiralera, eta udaleko web gunean, aztertu nahi duenarentzat.

Inongo erreklamaziorik aurkezten ez bada, epe hori iragan eta gero, ordurarte behin-behinekoa izan den akordioa behin-betikoz onartutzat joko da eta testu osoa argitaratzeari ekingo zaio. Bestalde alegazioak egonez gero, alegazioak hirigintza batzordean eztabaidatuko dira, ondoren plenoak tratatu eta erabaki ditzan.

UTILIZACIÓN DE LOCALES

En Pleno Ordinario celebrado por el ayuntamiento el 29 de Mayo de 2014, por unanimidad de todos sus miembros presentes, se aprobó la Ordenanza que regula la utilización como vivienda, garajes o servicio terciario, de locales situados en planta baja, entreplanta y sótanos de edificaciones ya existentes.

La Ordenanza, además de establecer los condicionantes para la reutilización de locales, contiene los planos individuales de aquellos locales susceptibles de acogerse a la misma.

Esta Ordenanza ha salido publicada en el Boletín de Gipuzkoa, el 25 de junio, desde cuya fecha se contaba con 30 días laborables para la presentación de alegaciones. El expediente se puso a disposición de los interesados en la secretaría del Ayuntamiento y en la web.

A la aprobación definitiva, se publicará el texto completo de la Ordenanza.

Herriko sarrera, MIRAMAR

Jakina da gure herriko lehen lerroa ez dagoela guk nahiko genukeen bezala, bertan hainbat eraikin ditugulako egoera ez oso egokian.

Hala ere aurreko urtetik Ondargain tabernaren itxura hobera aldatu dela esan dezakegu, eta poztekoa da, berriro ere udalaren eraikin hau herritarrei zerbitzua emateko irekitzea lortu dugulako.

Baina badira beste eraikin batzuk udalarenak ez direnak, eta egoera aldatzea zailagoa egiten dena.

Bere eskuetan dauden aukerak kontuan hartuta, eta herrirako sarrera nagusiak bestelako itxura izan dezan, Miramarreko eraikinean lan batzuk egitea erabaki du udalak.

Hasierako lana, zintzilik zegoen kableatu guztia lur azpiratzea eta bertako farolak pintatzea izan da. Eta ondorengo lana, jabeak diren bizilagunen baimenarekin, fatxada txukuntzea izango da.

Egingo den lana, beste hainbat udalerritan bezala, pareta eta fatxada itsusiak edo estetika egoki baten aurka-koak, diseinu landu eta artez betetzea izango da.

Udalak lan hau egiteko, Artefactory, ekintzailez osatutako enpresa baten zerbitzua kontratatuko du. Muralismoan burubelarri eta etengabeko berrikuntzan aritzen diren Mondragon Unibertsitateko 4 ikaslek eta artista muralista (Lander Subiza) batek osatzen dute enpresa.



Es sabido por todos/as que la primera línea de playa, imagen principal de la entrada de nuestro pueblo, no se encuentra como a nosotros/as nos gustaría, debido a la situación de algunos edificios.

Aún así, este año podemos decir que ha mejorado la situación del Ondargain, pudiendo gozar todos/as del servicio que ofrece.

En la medida de nuestras posibilidades, y para poder ofrecer una mejor visión principal del municipio, vamos a realizar una actuación en la fachada del edificio Miramar, con el permiso de la vecindad.

Después de haber soterrado el cableado y pintado las farolas, con la ayuda de la empresa Artefactory, empresa de jóvenes emprendedores de Mondragon Unibertsitatea, se realizará un mural en toda la fachada vista.

Sorozabal pasealekuan obrak



Deban dugun paseorik gustokoenetako bat Sorozabal pasealekuan gora arte joatea dela esan dezakegu, bertan buelta eman eta ibiltzen jarraitzeko, edo Lapari hondartzara jaisteko.

Pasealeku hau, bi fasetan garatu zen; lehenengoa, Lapari hondartzara jaisteko hasierako eskailerak artekoa, 1984ean egin zen, eta bigarren fasea, 1996. urtean, ordura arte zegoenari 178 metro gehituz Lapari hondartzaren gainean, bertara jaisteko azken eskailerak ere eginez.

Beraz, pasealekuaren lehen zatiak 30 urte darama itsasoari begira eta haren haserreak jasaten.

2012ko irailean, pasealekuaren lehenengo zati horretako eremu jakin bateko egoeraz kezkatuta, Udalak Gipuzkoako itsasertzeko arduraduna jakinaren gainean jarri zuen, neurriak hartzeko eskatuz. 2013ko udazken arte

jarraipen teknikoa egiten aritu dira, 2013ko azaroan egituraren analisia egiteko lana enkargatu zuten arte. INJELAN S.L. eta FHECOR ingeneritza taldeek egin dute lana; ekainaren 26an udalean izandako bileran lana aurkeztu eta ondorioak azaldu zizkiguten teknikoek.

Ikerketa teknikoak pasealekuaren hasierako zati baten egoeraren larritasuna adierazi du, itsasoari begira pasatako urteen ondorioz, baina baita ere negu hontako tenporaleen eraginagatik. Txosten teknikoa eskutan, udalak, biztanleen segurtasuna bermatzeko, ezinbesteko neurri bezala, pasealekua itxi behar izan du.

Udalak egoera hau lehenbailehen konpontzeko eskatu dio Gipuzkoako itsasertzeko arduradunari, eta izan diren elkarrizketen ondorioz, egingo diren obrak, Gipuzkoako beste herrietakoak bezalaxe, tenporaleak kaltetutako emergentzia lanak egiteko Ministeritzak atera duen planaren barruan sartuko dira.

Gipuzkoako Itsasertzeko arduradunak jakinarazi digunez, obrari dagozkion hasierako lan batzuekin hasita daude, eta tokian bertan, lanak abuztuaren 19an hasiko dira, eta gehienez ere bi hilabeteko lanak aurreikusten dira. Tartean bost egunetan errepidea itxi egin beharko dela adierazi dute, lan hauek gauzez burutuz, ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.

Bide batez udalak, herritarrei, ipinitako segurtasun neurriak kontutan edukitzea eta arduraz jokatzeari eskatzen die.

Una de las cosas más agradables que tiene Deba es caminar por el paseo Sorozabal, desde el que se puede acceder a la playa de Lapari. Este paseo se construyó en dos fases: la primera se realizó en 1984, llegando hasta el primer tramo de escaleras que bajan hasta la playa. En la segunda fase, construida en 1996, se alargó el paseo 178 m. y se hizo el segundo acceso a la playa. La primera fase del paseo lleva por tanto 30 años mirando al mar y sufriendo un continuo desgaste.

En septiembre del 2012, preocupados por su estado de deterioro, se informó al servicio de Costas para que tomara las medidas necesarias. Éste realizó un seguimiento técnico hasta el otoño del 2013 y en noviembre de 2013 solicitó que se hiciera un análisis de la estructura de dicho paseo. Las ingenierías INJELAN S.L. y FHECOR realizaron el análisis solicitado y en la reunión del 26 de junio presentaron en el Ayuntamiento su trabajo y su consecuente resultado.

La investigación técnica reveló la gravedad del estado de la 1ª fase del paseo, debido a los daños producidos por las inclemencias del mar durante todos estos años, a lo que hay que añadir la influencia del temporal de este último invierno. Una vez recibido el informe, el Ayuntamiento se vio en la obligación de garantizar la seguridad de la ciudadanía, y por ello ha sido inevitable el cierre del paseo.

Como resultado de las reuniones celebradas con responsables de Costas, se acordó incluir el costo de dicha reparación dentro del plan aprobado por el Ministerio para reparar los daños causados por el temporal. Por todo ello, los trabajos previos ya han empezado, las obras “in situ” comenzarán el 19 de agosto y se prevé que finalicen en 2 meses como mucho. Al mismo tiempo, desde el Ayuntamiento se solicita a la ciudadanía que respete las medidas de seguridad adoptadas y que actúe con responsabilidad.

Gizarte babes sistemari buruzko HAINBAT DATU DEBAN

Krisi garai honetan diru-laguntzen gaia kalean dagoela nabarmena da; horren aurrean dauden aurreiritziak apurtzeko hainbat azalpen egitea komeni da.

Diru-laguntzak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Tokiko administrazioek eskaintzen dituzte jatorri, mota eta helburu diferentekin. Orokorrean bateraezinak dira.

Oinarrizko beharrak asetzeko balio duten laguntza horiek unibertsalak dira, jaiotze lekuak ez du eraginik, beti ere, Euskal Autonomi Erkidegoan bizi izanda.


Laguntzak jasotzeko bete behar diren baldintzak agirien bitartez ziurtatu ondoren, zehatzak eta zorrotzak direla aipatzea komeni da.

Dirulaguntzak etorkinek soilik jasotzen dituztela; ikuspuntu hori zabaldua dago gure artean, baina errealitatea beste bat da. Horiek hor daude baina ez dira bakarrak, Debako kasuan prestazio ekonomikoa jasotzen duten 4 lagunetik bat pentsioduna da; %20a seme alaben zaintza eduki eta bakarrik bizi diren emakumeak.

Beraz eta ondorioztat esan daiteke Deban pobreziak hiru aurpegi dituela; adinduak, zama familiarra duten baina bakarrik bizi diren emakumeak eta etorkinak. Orain, krisi garaia areagotuta, gaizki pasatzen ari diren debarren kopuruak igoera nabarmena izan du. Gure udalerriko datuen arabera, beharrean dauden eta prestazio ekonomikoren bat jasotzen duten 95 familia bizi dira Deban; azken bi urteetan hartzaileen kopurua %67 igo da.

Debako Udalak 31.000 euroko urteko aurrekontua du aurreikusita gizarte larrialdiko laguntzetarako eta 2012. urteaz geroztik Udalaren, Karitasen eta janari bankuaren bitartez, 30 familiek elikagaiak jasotzen dituzte bizi duten egoerari aurre egiteko.

Prestazio sistemak gure gizartean dagoen pobreziari aurre egiten laguntzen du; zer izango litzateke debar gizarteaz diru-laguntzen berme sistema gabe?



Diru sarrera bermatzeko errenta jaso duten familien bilakaera taula

En estos tiempos, las tergiversaciones que a menudo se lanzan sobre las ayudas sociales, hacen obligatorio un apunte aclaratorio en torno a las mismas.

Las ayudas en dinero proceden de diferentes instituciones: Gobierno Vasco, Diputación y administraciones locales, que en general nos son acumulativas.

Estas ayudas destinadas a cubrir las necesidades básicas de las familias son universales, sin que el origen de las mismas tenga influencia alguna siempre que vivan en la Comunidad Autónoma Vasca.

Las condiciones para el otorgamiento de la ayuda son absolutamente rígidas y garantizadas por la documentación correspondiente. La opinión de algunas gentes de que las ayudas recibidas las reciben solamente los inmigrantes es absolutamente infundada.

Naturalmente, ellos están ahí, pero en Deba, de las personas que reciben ayuda, una de cuatro son pensionistas, y el 20% son mujeres que viven solas y tienen niños/as a su cargo.

La pobreza en Deba, tiene tres caras: ancianos, mujeres solas con carga familiar e inmigrantes. El ayuntamiento de Deba, cuenta con un presupuesto de 31.000 euros y desde el 2012, junto con otras entidades como Cáritas y Banco de alimentos, 30 familias reciben alimentos para cubrir mínimamente sus necesidades básicas de sustento.

El sistema de prestación ayuda a hacer frente a la pobreza. Si no fuera así, ¿qué sería de la sociedad de Deba, sin la garantía del sistema de ayudas sociales?

Lasturren energia produzitzeko instalakuntza bat abian ipiniko da

Badira urte batzuk Lasturren hornikuntza elektrikoari lotutako arazoak gertatzen ari direla eta, horren ondorioz, bertan kokatzen den araztegia eta aterpetxeko igogailua ezin izan dira martxan ipini.



Hori dela eta, Debako udalak azterketa tekniko bat egin ondoren, arazoa konpontzeko eta energia berriztagarrien bitartez aurrera eramateko apustua egin du. Irtenbide hau Lasturreko landa gunerako aproposa dela uste dugu eta gainera autosufizientzia eta energia berriztagarrien apustu finkoa suposatzen du.

Ezaguna den bezala, indarrean dagoen legeak ez ditu erabaki hauek errazten, enpresa elektrikoaren mesedetan eginak baitira. Hala ere, orain inoiz baino gehiago administrazioak energia berriztagarrien aldeko apustua egitea funtsezkoa da.

Apustua bi alderdietan finkatzen da:

- Gutxiago kontsumitu, eraginkortasun energetikoa bermatuz.
- Energia ekoiztu, elektrizitatea sortuko duen instalakuntza abian ipiniz.

Beraz, 2014. urtean frontoian elektrizitatea ekoiztuko duten 90 eguzki plaka jarriko dira. Era berean, argiteria publikoa berriztuko da LED teknologia ipiniz eta frontoiko argiak ordezkatzeko dira eraginkorragoak diren beste batzuk ipiniz.

Sarera lotutako instalakuntza izango da eta hasiera batean proiektu honen bitartez lortzen diren aurrezpen eta produkzioetatik abiatuta, araztegia eta aterpetxeko igogailua martxan ipintzea lortuko da. Era berean, hemen aurkezten den proiektuak etorkizunean Lasturko San Nikolas gunean dauden zerbitzu publiko guztiak sisteman sartzeko aukera emango du.

Proiektuaren kostua 173.000 euro (BEZ barne) izango da, eta Eusko Jaurlaritzak EREIN programaren bitartez %54eko finantziakzioa onartu du. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailetik beste %28ko diru laguntza jasotzea ere aurreikusten da.

Proiektu hau berritzailea da, ez hainbeste erabiltzen duen teknologiatatik, baizik eta abian ipini nahi duen filosofia eta lan metodologiatatik.

Kontsumoa murriztu eta ahal dena tokian produzitu.

INSTALACIÓN DE PRODUCCIÓN DE ENERGÍA EN LASTUR

Debido a insuficiencias en el suministro de energía eléctrica, hace años que no se pueden poner en funcionamiento la depuradora y el ascensor del albergue en Lastur. Como resultado de la investigación técnica realizada, el Ayuntamiento ha decidido subsanar el problema en base a la instalación de un sistema de producción de energía renovable.

El proyecto combina la producción de energía con medidas de ahorro de consumo, con la instalación de 90 placas solares en el techo del frontón y la incorporación de la tecnología LED en el alumbrado público. Asimismo, el alumbrado del frontón se sustituirá por uno más eficiente. Se prevé que en un futuro toda la energía eléctrica pública necesaria en el entorno de San Nicolás podrá ser abastecida por la citada instalación.

El coste del proyecto es de 173.000 euros, IVA incluido, de los cuales, el 54% será sufragado a través del programa EREIN del Gobierno Vasco. Asimismo, se espera recibir una ayuda del 28% del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Este proyecto es innovador, no por la tecnología a utilizar, sino porque pretende poner en marcha una filosofía y metodología de trabajo. **Reducir el consumo, y en la medida de lo posible, producir localmente.**



BURUGORRI

Joan den maiatzean, Debako udaletxeak Itziarko kaskoan kokatzen den Burugorri eraikinaren erosketa burutu zuen. Martxoaren 27an egin zen udalbatzarrean, aho batez onartu zen eraikin honen jabegoa hartzeko beharrezko aurrekontua. Eraikinaren erosketagatik 390.000 euro ordainduko ditu udalak.

Burugorri, tamaina handiko eraikuntza da eta egoera onean aurkitzen da. Udal arkitektoak egindako azterketan eta alderdi guztietako zinegotziek egindako ikustaldian, hori egiaztatu ahal izan dugu. Herritarrentzat aukera desberdin eta zabalak eskainiko dituen baliabidea da. Eraikina honela dago banatua:

- 0. solairua: taberna, komunak, sukaldea, tabernarientzako komuna eta aldagela, eta biltegia.
- 1. solairua: harrera, jantoki txikia, jantoki handia, zerbitzurako sukaldea, komunak, lorategia eta frontoirako irteera.
- 2. solairua, etxebizitza: 5 logela, 2 komun, sarrera eta ordenagailu gela.
- 3. solairua: 120 metro koadroko ganbara.

Gaur egun, kirola, kultura eta aisialdiarekin lotutako hainbat ekintza egiten dira Itziarren urte osoan zehar: dantza, aerobik, spinning, trikitia, bertso eskola,... Udalak ez du horiek aurrera eramateko guneez egokirik eta inbertsio horrek horri erantzungo lioke.

Gaur egun gimnasiako ekintzak egiteko erabiltzen den gunea alokairuan hartzen da, eta 15.000 euroko kostua du urtean.

Aurrera begira zerbitzu berriak eskainiko dira Itziarren: udalaren arretarako bulegoa, bilkurak egiteko gunea,... Eraikin honen erosketari esker, zerbitzu hauek guztiak guneez berean eskainiko dira.

Urteak dira Debako Udala Itziarren zerbitzu hobekak eskaintzeko eraikinaren beharraz jabetua dela. 2009an Herriko Plazan kokatzen den udaletxeo eraikina birgaitzeko aurreproiektua egin zen, 900.000 euroko aurreikuspenarekin. Ondoren, 2010. urtean hainbat aldaketa egin ziren, azalera handiagoa emanez, eta 2011ko martxoan aldaketak adostu eta azken proiektu proposamena onartu zen. Hala ere, egun, proiektu horren exekuzioa ez da bideragarria.

Burugorriaren erosketarekin, beraz, aspalditik genuen behar bati konponbidea eman zaio. Orain, eraikin honen erabilera antolatzeke lanean ari gara. Eraikinaren erabiltzaile izango diren herritar eta elkarteekin lehen elkarrizketak hasi ditugu, eta irailetik aurrera erabakiak hartzen hasteko pausuak emango ditugu.

El pasado mes de mayo, el Ayuntamiento de Deba procedió a comprar el edificio de Burugorri ubicado en Itziar. Previamente, en el pleno del 27 de marzo, se aprobó por unanimidad su compra, por la que el Ayuntamiento deberá pagar 390.000 euros.


Burugorri es un edificio grande, y tal y como se ha podido constatar, se encuentra en buen estado. Hace años que en Itziar se realizan muchas y muy diversas actividades (dantza, aerobik, spinning, trikitixa, bertso eskola...) y para ello el Ayuntamiento, al no disponer de un local adecuado, alquila un local con un costo de 15.000 euros anuales.

En adelante, Itziar podrá ofrecer otros servicios: oficina municipal de atención ciudadana, sala de reuniones... El edificio de Burugorri dispone de sitio suficiente para albergar estos servicios y todas las actividades que se han realizado en los últimos años.

Ya en 2009, el Ayuntamiento de Deba, consciente del problema que había en Itziar por falta de locales, realizó un anteproyecto de rehabilitación en el edificio del Ayuntamiento de la Plaza de Itziar, con un presupuesto estimado de 900.000 euros. Más adelante, en 2010 y 2011, se realizaron unos cambios en el proyecto y en marzo de 2011 se aprobó la última propuesta, si bien su ejecución no es viable.

Por lo tanto, con la compra de Burugorri se ha solucionado un problema que venía de años atrás. Ahora lo que prima es programar el uso del ese edificio y ya estamos trabajando en ello.

Kiroldegia



Legegintzaldi hasieratik, kirol jarduerak sustatzea eta herriko kirol-instalazioak egokitzea izan dira Udal gobernu honentzat lehentasunezko helburuetako bat.

Begi bistan zegoen bezala, herriko hainbat kirol-instalakuntza, zeharo hondatuta edo zahartuta aurkitu ditugu, Errotazar futbol zelaiko aldagelak edo udal kiroldegia dira adibide argienak. Lortu da behingoz, futbol zelaiko aldagela berriak eraikitzea eta orain dagokigu kiroldegiaren egoera tamalgarriari irtenbide egoki bat ematea.

Kiroldegia eraberritzeko lanak ezinbestekoak dira, instalakuntza eta kirol-zonalde desberdinak hondatze egoera haundian aurkitzen direlako. Eraberritze-proiektoreen hasierako lehen helburua, eraikuntzaren oinarrizko birgaitzea egitea izango da, hezetasun guztiak ezabatu, aldagelak, arotzeria, iturgintza nahiz instalazio elektrikoak goitik behera berriztuko dira, gainontzeko gelak txukundu eta margotu, eta nola ez, zatitutako barneko kirol-kantxa, jaso eta berria instalatu. Hobekuntza horien guztien aurrekontua 636.561 eurokoa izango da.

Kirol-gune eta zerbitzu berriak sortzea izango da gure bigarren helburua; horretarako hurrengoko lan-ekintzak egingo dira: alde batetik lehen solairuko spinning-gela haunditu egingo da, gaur egun duen azalera bikoiztuz eta kirol modalitate hori praktikatzeko baldintzak hobetuz. Solairu berean, beste forjaketa berri bat eraikiko da, emakume eta gizonezkoentzako saunak berriztu eta haundiagotu egingo dira erabilgarriagoak izateko. Aldi berean, saunaren ondoan, fitness-gela berria egingo da, ekipamendu eta tresneria guztiekin hornituta. Gainera, kiroldegiko goiko espazioaren erabilera berreskuratuko da, oraingo zoladura zaharraren gainean hormigoi porotsua zabalduz, padela eta tenisa praktikatzeko aukera emanez. Berrikuntza horiek guztiek 296.264 euroko aurrekontua izango dute.

Bestalde, energi-iturri berriztagarrien erabilpenaren apustua egin da, biomasako galdarak instalatuz. Sistema horren bitartez, bioerregaia erretzen da ur-berorako beharrezkoa den energia termikoa sortuz.

Beraz, kiroldegiaren eraberritze proiektu osoak 1.298.027 euroko aurrekontua izango du, zergak barne.

Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol sailak 530.000 euroko diru laguntza emango du kiroldegiaren erreforma proiektua aurrera eraman ahal izateko, eta ingurumen sailak ere energia berriztagarrien arloan dirulaguntza bat ematea ere aurreikusten da. Horrekin loturik, azken udal plenoan, uztailaren 30ean, kreditu aldaketa eta kiroldegiaren erreforma-lanak egiteko eta kontratatzeko pleguak ahobatez onartu dira. Horrela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean esleipenaren iragarkia argitaratu ondoren, prozedura administratibo guztia abian jarriko da. Kiroldegiaren berrikuntza-obra udazkenean hasiko direla eta 9 hilabeteko iraupena izango dutela aurreikusten da.

Bitarte horretan, udalak zerbitzu minimo batzuk eskaini nahi ditu, eta antolaketa horretan ari da lanean. Hala ere zerbitzu horiek, bai eta ordutegiak eta tokiak ere, jakinaraziko ditugu.

Desde el comienzo de esta legislatura, uno de los objetivos prioritarios ha sido el de rehabilitar y adecuar las instalaciones deportivas municipales. Por fin se han construido los nuevos vestuarios de Errota-Zar y actualmente nuestros esfuerzos están centrados en renovar y mejorar las instalaciones del polideportivo.

Dado el actual estado de deterioro del mismo, se hace indispensable la reforma total de aseos y vestuarios, carpinterías y acabados interiores, así como de las instalaciones de fontanería y eléctricas. Asimismo, el pavimento de la pista interior será sustituido por otro pavimento sintético, y se eliminarán las filtraciones y humedades por debajo de esta pista. La ejecución de todas estas reformas tiene un presupuesto de 636.561 euros.

GEOPARKEEN MUNDUKO SAREKO EBALUATZAILEEN BISITA AZTERKETAREN EMAITZA IRAILEAN EZAGUTUKO DA



Geoparkeen Europako eta Munduko Sarean sartu eta lau urte beranduago, pasa den uztailaren 2tik4ra, Euskal Kostaldeko Geoparkeak bi ebaluatzailearen bisita jaso zuen, geoparke izendapenari eusten dion erabakitzeko. Ikuskariek Geoparkeko hainbat interesgune bisitatzeko aukera izan zuten, besteak beste, Debako turismo bulegoan zabaldu berri den Geoparkearen Gunea edota Sakoneta-Mendatagaina ingurunea.

Hiroko Torigoe japoniarra eta Richard Watson ipar irlandarra izan dira Geoparkeen Munduko Sarearen izenean Euskal Kostaldeko Geoparkearen azterketa egiteaz arduratu diren bi kideak, geoparke izendapenari beste lau urtez eusten dion erabakitzeko.

Gogoratu, Euskal Kostaldeko Geoparkea 2010az geroztik dela Geoparkeen Europako eta Munduko Sareko kidea. Sarea ondare geologiko eta kultural azpimarragarria duten lurraldeek osatzen dute eta UNESCOren babesa dauka. Sarean dauden geoparke guztiak, lau urtetik behin, azterketa prozesu zorrotza igaro behar dute irizpide edota parametro egokiak izan egiten dutela ziurtatzeko.

Euskal Kostaldeko Geoparkearen kasuan, azterketa uztailaren 2tik 4ra bitartean egin zen. Hiru egunez bi ikuskariek agenda betea izan zuten, Geoparkeak azken 4 urteetan egindako jarduera eta ekintza guztien berri jasotzeko. Interesgune adierazgarrienak bertatik bertara ezagutu zituzten, besteak beste, Mendatagaña-Sakoneta ingurunea, Itzurungo hondartza, Elorriagako aisialdirako gunea edota Olatzko bailara karstikoa. Era berean, Geoparkearen Gune berria, Algorri eta Nautilus Interpretazio Guneak, Mutrikuko hirigune historikoa, Bentalekua Museoa eta Ekainberri, Ekain kobazuloaren erreplika, ezagutzeko aukera izan zuten.

Azterketaren emaitza irailean jakingo da, Europako Geoparkeen Sareak Alemanian, Harz Geoparkean, irailaren 3an eta 4an burutuko duen Koordinazio Batzordean.

LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN

Euskal Kostaldeko Geoparkeak eta Eusko Jaurlaritzak hiru urteko iraupena izango duen lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Akordio horren helburua da bi erakundeen arteko elkarlanean sakontzea eta ingurune naturala babesteko zein jasangarritasuna sustatzeko ekintzak burutzea, hala nola, ikerketa geologikoarekin, geokontserbazioarekin, dibulgazioarekin edota iraunkortasunerako heziketarekin loturiko proiektuak abiaraziz. Hitzarmen horren bitartez, 2016. urtera arte urteko 30.000 euro jasoko ditu Geoparkeak, denera 90.000 euro.

Dos representantes de la Red Mundial de Geoparques, la japonesa Hiroko Torigoe y el norirlandés Richard Watson, han sido los encargados de realizar la evaluación del Geoparque de la Costa Vasca, con el objetivo de determinar si continúa con la distinción de Geoparque para otros cuatro años más de duración. Los dos evaluadores han tenido la oportunidad de visitar diferentes puntos de interés, como la recién inaugurada “Geoparkearen Gunea” en la oficina de turismo de Deba o la zona de Sakoneta-Mendatagaina, entre otros.

El resultado de esta evaluación se conocerá en la primera semana de septiembre, durante la reunión que celebrará el comité de coordinación de la Red Europea de Geoparques.

ACUERDO DE COLABORACIÓN CON EL GOBIERNO VASCO

El Geoparque de la Costa Vasca y el Gobierno Vasco han firmado un acuerdo de colaboración para los próximos tres años. Con él se pretende profundizar en la relación entre ambas entidades y a través del mismo, el Geoparque recibirá hasta 2016 un montante de 30.000 euros anuales.

Tene Mujika



Robustiana Mujika Egaña (Deba, 1888-1981) ospe berezia erdietsia zuen idazle gisa 36.eko gerratea baino lehenagotik. Gipuzkoako Emakume Abertzale Batzako lehendakaria izan zen (1935) eta, familiaren dendan aritu zen arren, literatur sariketa askotan gailendu zen. Argitaratu zuen lehendabiziko liburua “Miren Itziar'i idazkiak” eta olerkiak izenburuduna dugu, Euskaltzale Bazkuna izeneko elkartearen saritutako 126 orrialdetako lana. Idazlan aberkoiak dira, hemeretzi gutun eta 23 olerkiz osatua. Eskutizetan emakume abertzaleen eginkizunak plazaratu zituen, eta olerkiak natura eta Euskal Herriko edertasunari eskainiak dira. Bereziki kezkatzen zuen euskararen egoerak, bai eta emakumeak hartan egin zezakeen lanak: **«Bere umetxuak euzkeldun eta euskeltzale azi, ara emen emakume abertzalearen egiteko garrantzi aunidun bat, eta euzkera**

aldez eragioen aundidun bat». Geroztik beste hainbat lan saritu zizkioten eta 1969.ean “Cuadernos de vascuence hablado” izenburuko kaleratu zuen Zarautzen, seme alabak ikastoletara eramaten zituzten guraso erdaldunentzako esku liburua. 1975.ean, emakumearen nazioarteko urtea zela bide, euskaltzain ohorezko izendatu zuten.

Herriko emakume hura omentzeko eta euskara bultzatzeko antolatu zuen, beraz, Debako Udalak, Kultur Elkartearen laguntzarekin, lehendabiziko Tene Mujika literatur lehiaketa 1983an. Geroztik, lehiaketa hari esker argitaratu dira, urtez urte, hainbat eta hainbat ipuin, 2005ean beka formatora aldatzea erabaki zen arte.

Bekaren ondorioz, Euskal Herriko Historia hurbileko hainbat gai interesgarri jorratu dira, literatur estilo nabarmenarekin: Adibidez, IV. urtean, Imanol Muruaren **“Loiolako Hegiak”**, EAJ, PSE eta Batasunaren artean izandako elkarrizketa eta negoziazioen historia. VI. urtekoa, Mikel Markez eta Pako Aristiren, **“Plazer bat izan duk, Benito”**, Benito Lertxundi kantariarekin urtetan egindako solasetan oinarritutakoa edo azken deialdikoa, VIII urtekoa eta azken sari irabazlea, Josu Martinez zinemagile, idazle eta musikari bilbotarraren, **“Presoaren betebeharra”** izeneko proiektuarekin, non Euskal Herrian edo euskal presoak azken 50 urteetan kartzelatik egindako ihesak edo ihesaldi-saiakerak kontatuko dituen.

Aurten beste urrats bat egin dugu. Beka sistemarekin jarraitu baina herriko memoria historikoa berreskuratzeko ahalegina egin nahi da, Debaren historian garrantzia handia izan duen gai zehatz honetan zentratuz: Mendata puntan eraiki asmo zen **ZENTRAL NUKLEARRA**. Proiektu haren kontrako protesta eta erresistentzia antolatu zelako lortu zen zentral hura ez egitea eta, gaur egun, Euskal Kostaldeko Geoparkea osatzen dute lur horiek, beren aberastasun guztia gordez. Deban bertan eta Euskal Herri osoan eratu zen mugimendua hobeto ezagutzeko, orduko historia, lekukotasunak, arrazoiak eta ondorioak bilduko lituzkeen ikerketalan bat egitea izango da, aurten, Tene Mujika literatur bekaren helburua.

Robustiana Mujika Egaña (Deba, 1888-1981), adquirió reconocida fama como escritora antes del inicio de la guerra civil de 1936, siendo galardonada en varias ocasiones por su gran labor literaria.

Su espíritu de trabajo y lucha le hicieron llegar a la presidencia de “Gipuzkoako Emakume Abertzale Batza”.

En homenaje a esta gran mujer y con el fin de potenciar el euskara, Kultur Elkartea y el Ayuntamiento de Deba organizaron en 1983 el primer certamen “Tene Mujika Literatur Lehiaketa”, concurso que en 2005 pasó a convertirse en beca.

Para el certamen de este año, que continúa con el formato beca, se ha decidido fijar un tema concreto tratando de recuperar la memoria histórica de Deba: **“El intento de construcción de una central nuclear en Mendata”**.

Los trabajos presentados deberán recoger la historia, los testimonios, las razones y las consecuencias en torno al movimiento contra la construcción de dicha central nuclear, movimiento que tuvo lugar en Deba y en Euskal Herria en general.

Garraio publikoa

JAIKAK

Aurten ere Debako Udalak, herriko jaietara etortzeko gaueko autobus zerbitzua eskainiko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Itziar jaietan, Kopraixetan, bai larunbatean eta bai asteazkenean hor izan dugu autobusa festaz gozatzeko aukera emanaz, Itziartik Debara, orduero, gora eta behera.

San Roke jaietan eskualdekoak gure herrira etortzeko aukera izango dute, aurreko urtean bezala. Bestalde, aurten zerbitzu bat gehiago eskainiko da, eta Itziartik Debako jaietara autobusez etortzeko aukera izango da.

Este año, además de los autobuses nocturnos que han funcionado durante las Kopraixak, habrá servicios nocturnos de autobuses para disfrutar de las fiestas de San Roke, con una ampliación en la oferta para que también los Itziartarras puedan disfrutar de las fiestas de Deba.

Abuztuak 14 - 15

Eibar → Mutriku
00:30, 2:30, 4:30, 6:30

Mutriku → Eibar
23:30, 1:30, 3:30, 5:30

Abuztuak 14 - 15 - 16

Itziar → Deba
22:30, 23:30

Deba → Itziar

22:00, 23:00, 00:00, 1:00, 2:00, 3:00, 4:00, 5:00

Zerbitzu berria!!

Beraz jaietan aprobetxatu autobusuak eta utzi autoa dagoen tokian!

ITXASPEKO KANPINA ETA UDALAREN ARTEKO ELKARLANA

Aurtengo udaran, Itxaspe kanpinera hurbiltzen diren bisitariek herrigunera etorri eta ezagutzeko aukera izan dezaten, Debako Udalak eta Itxaspe kanpinak autobus zerbitzua jarri berri dugu martxan.

Proba moduan, esperientzia pilotu bezala, **uztailaren 23an** hasi eta **abuztuaren 24a** bitartean, lau autobus ipini dira jaisteko eta beste lau igotzeko. Kanpinetik **9:45 – 12:15 – 16:00 - 20:15**ean aterako dira, eta Debako Pasealeku Estalian izango dute geldialdia. Handik, **10:00 – 12:30 – 16:15 – 20:30**ean aterako dira bueltan Itxaspe. Txartelak kanpinean bertan edota Turismo Bulegoan erosi ahal izango dira. Bidaia bakoitzak 2 euroko kostua izango du pertsonako.

Neurri hau herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko lagungarria izango dela uste dugu eta, emaitzaren arabera, hurrengo urtean beste establezimenduetara ere zerbitzua zabaltzeko egon litezkeen aukerak aztertuko ditu udalak.



Acuerdo entre el Camping de Itxaspe y el Ayuntamiento

Con el objetivo de que los usuarios del camping de Itxaspe se acerquen con mayor facilidad a conocer y disfrutar del casco urbano de Deba, el Ayuntamiento y el camping han organizado recientemente y por primera vez, un servicio de autobús que une ambos puntos.

Como prueba piloto, el servicio funcionará desde el 23 de julio hasta el 24 de agosto. Los billetes se podrán adquirir por el precio de 2 euros, en el propio camping o en la oficina de turismo de Deba.

En el caso de que la experiencia sea positiva, se estudiará la posibilidad de extenderlo a otros establecimientos y zonas del municipio para el próximo año.

Kopraixetan

giro ederra egon da



MILA ESKER IBAILAGUN GUZTIOI!

2011n hasi ginen Debabarrenean IBAILAGUN ekimena burutzen eta 4 urte hauetan Debako hezegune eta ibaitik hondakin piloa atera dugu. Herriko elkarte eta herritarrekin batera lan eginez, gure ibaia garbiago egotea lortu dugu.

Debako Udalaren eta Debegesaren izenean, eskerrak mila ibailagun guztioi!



Debabarreneko Mankomunitatea, URA Uraren Euskal Agentzia, Deba Kayak elkarte, Deba-Itziar Xstream Triatloi Taldea, Zubi Guraso Elkarte, La Lubina Elkarte, Debako Gurutze Gorria, Amaiak-Bat Futbol Taldea, Yako Surf Eskola, Santixo Baserria, Goikola Baserria, Debako herritarrak.

UDAKO AISIALDIA 2014

Kolorez Blai udalekuak 2014



Aurten ere izen ematea arrakastatsua izan da. Lehen txandan, Debako zein Itziarko haurrak zenbatuta 135 laguneko taldea osatu da, 120 haurrek hartu dute parte Deban eta 15ek Itziarren. Bigarren txandan aldiz, Itziarren taderik sortu ez den arren Deban 101 haurrek eman dute izena. Ume uholde horrekin lanean 16 begirale aritu gara.

Beraz, jarrai dezagun “kolore artean mugituz, eskuak gora altxatuz, herri guztiari erakutsiz euskaraz egiten dugula hitz”!!



UDA KIROLA

Igeriketa, piraguismoa, surfa, body boarda eta Donosti Cup futbol txapelketan parte hartu duten neska mutilak, 430 inguru izan dira uztailaren amaieraraino.

Abuztuan zehar ere eskaintzak zabalik jarraituko du, batez ere ur ekintzetan.

PRAILEAITZ

Joan zen ekainean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Deban, Praileaitz I haitzuloan egindako ikerketari buruzko **liburua** aurkeztu zuen.

Xabier Peñalver-ek zuzendutako arkeologo taldearen lana ezagutu eta kobazuloa bertatik bertara ikusteko **bisita** antolatu zen. Han izan ziren Diputazioko eta Debako Udaletxeko ordezkariak. Uztailaren 1ean hasi ziren Praileaitz I-eko indusketak eta hilaren 25a bitartean aritu dira lurzoruak gordetzen dituen altxorak berreskuratu nahian.

Eta baita aurkitu ere! **Beste sarrera bat aurkitu dute** bertan lanean aritu diren arkeologoek, eta, horrela, Praileaitzek garai batean gutxienez bi sarrera izan zituela frogatu da. Aurkikuntzak garrantzi handia dauka bi ikuspegitatik begiratuta. Alde batetik, Praileaitzeko haitzuloa uste zen baino konplexuagoa dela erakusten du aurkikuntzak, sarrera berria handia izan zen itxura hartu baitute. Horrela, ondorioztatu daiteke orain aurkituriko sarreraren zegoela jatorrizko aztarnategia, sarreraren inguruan bizi baitziren Paleolitoko gizakiak eta ez kobazuloen barne-barnean. Orain aukera berria zabaltzen da, ongi kontserbatuta badago, jatorrizko aztarnategia aurkitzeko.



El pasado mes de junio se presentó en Deba el **libro** que ha publicado la Diputación sobre la investigación realizada en la cueva de Praileaitz I.

Se organizó además una **visita** al yacimiento de la mano de Xabier Peñalver, en la que estuvieron presentes representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Deba.

Asimismo, en fechas recientes ha sido descubierta una nueva boca de **entrada** a la cueva, lo que probaría la existencia como mínimo de dos entradas a la misma, lo cual supone un hallazgo de gran importancia para un yacimiento que se antoja más complejo de lo que se pensaba.



Martxan dira dagoeneko!!



Sokari eutsi erori gabe!!

Itziarren ere auzo konpostajea abian da

Ekainean Zabalsoro pilotalekuaren ondoan jarri den konpostgunea dela eta, Itziaroko bizilagunek konposta egiteko aukera dute. Gaur egun, 8 familiak parte hartzen dute, hau da 30 pertsonak, baina hemendik aurrera animatuko diren beste asko espero dira.

2013ko maiatzean Debako eta Itziaroko herritarrei konpostajea modu kolektiboan egiteko aukera eman zitzaientetik, Debako herrigunean bi konpost-gune eraiki dira eta bertan 66 familia (195 herritar) ari dira parte hartzen. Gainera, beste 57 familiak (165 herritar) ere izena eman dute ekimenean parte hartzeko.

Urte bukaera baino lehen, Deban, beste 2 konpost-gune gehiago jartzea aurreikusten da.



Udako agendak jarraitzen du

	Eguna	Ekintza	Tokia	Ordua
abuztua • agosto	1-12	Erakusketa: JESUS BELAUSTEGI ZERAMIKA	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	2	MERKATU TXIKIA	Plaza Berria	Goizez
	2-5	KOPRAIXAK	Itziar	Zehaztu gabe
	7	Udako Musikaldia: ORGANO, TXISTU eta AHOTSA	Sta. Maria eliza	20:00etan
	7-10	SURFING DEBA FESTA		Zehaztu gabe
	14-18	SAN ROKE jaiak	Deba	Zehaztu gabe
	21	Udako Musikaldia: SECRETUM	Klaustroa	20:00etan
	22-31	Erakusketa: Juan Ignazio Aizpurua ARGAZKIAK	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	28	Udako Musikaldia: SESAME laukotea	Klaustroa	20:00etan
29	Iturri Ondoan: "ERDALDUN BERRIEN KLUBA"	Plaza zaharra	22:00etan	
iraila • septiembre	5	Iturri Ondoan: "BEGIRADAK"	Plaza zaharra	22:00etan
	6	MERKATU TXIKIA	Plaza Berria	Goizez
	10	Festak: "SAN NIKOLAS-LASTUR"		Zehaztu gabe
	12	Iturri Ondoan: "MURSEGO"	Elizataria	21:30ean
	12-14	Festak: "SAN NIKOLAS-LASTUR"		Zehaztu gabe
	13	KALE MARGO LEHIAKETA		Goizez
	14-21	Erakusketa: MARGO LEHIAKETA	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	19	Iturri Ondoan: "HITZ HOTSAK" irakurraldia	Plaza Zaharra	22:00etan
	22-30	Erakusketa: EUSKAL JAIKO KARTELAK	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	25	Mahai ingurua: EUSKAL JAIA DEBAN	Ispiluen gela	19:00etan
	26	Iturri Ondoan: JOKIN LASA	Plaza Zaharra	22:00etan
27	Festa: "EUSKAL JAIA"		Zehaztu gabe	
urria-octubre 3	Iturri Ondoan: Kulunka dantza taldea: ALIZIA MUNDU ZORAGARRIAN	Plaza zaharra	22:00etan	





**JAI HERRIKOI,
PARTEHARTZAILE, PAREKIDE
ETA EUSKALDUNEN ALDE**

Arrazionaltasuna
gizakion ezaugarri...
baina egia ote den
pentsatzen egon naiz sarri,
munduko injustiziei
gaurkoan begira jarri
Gazako irudiekin
nola garan iratzarri.
Nork agindu du hiltzeko
hainbat ume errukarri?
Handi-mandien legeak
txikion kartzela iturri,
Palestinan alde ozen
egin nahi nuke aldarri
Palestina Euskal Herria
luza eskua elkarri.



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia